

# Xala

*Cynthia Ozick*

KORO NAVARROK *itzulia*

Jatorrizko izenburua:  
*The Shawl*

© 1980, 1983 by Cynthia Ozick

© itzulpen honena, 2017, Koro Navarro  
Zuzenketa: Miren Arratibel

© argitalpen honena, 2017, Pasazaite liburuak

Harrobieta enparantza 12  
20017 Donostia - Gipuzkoa  
[www.pasazaite.com](http://www.pasazaite.com)  
[liburuak@pasazaite.com](mailto:liburuak@pasazaite.com)

Maketazioa: Astidiseinua  
Sailaren diseinua: La Personnalité

ISBN: 978-84-946218-1-9  
Legezko gordailua: SS-1029-2017

Inprimatzailea: Leitzaran grafikak, S.L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain-Gipuzkoa





*dein goldenes Haar Margarete*  
*dein aschenes Haar Sulamith*  
PAUL CELAN, «Todesfuge»



# Xala



Stella, hotza, hotza, infernuko hoztasuna. Nola ibiltzen ziren elkarrekin bideetan, Rosak bere bular minduen artean kuzkurtuta zeramala Magda, Magda xalean bilduta. Batzuetan Stellak eramaten zuen Magda. Baina Stellak Magdaren zeloak zituen. Hamalau urte zituen Stellak, gazteegia zen, bazituen bere bular propioak, eta bera ere xal batean biltzea nahi zuen, ezkutatzea, lo, martxak kulunkatua, umetxo bat, umetxo biribil bat besoetan. Magdak Rosaren titi-puntari heltzen zion, eta Rosak ez zion behin ere ibiltzeari uzten, sehaska ibiltaria zen. Esnea ez zen nahikoa; airea irensten zuen Magdak batzuetan; orduan negar batean hasten zen. Stella goseak akabatzen zegoen. Tumorrak makilen gainean, horixe ziren haren belaunak, eta oilo-hezurak haren ukondoak.

Rosak ez zuen goserik sumatzen; arina sentitzen zen, ez ibilian dabilen norbait bezala, kordegabetua bezala baizik, trantzean, atake batean geldiarazia, dagoeneko aingeru flotatzaile bat den norbait bezala, erne eta dena ikusiz, baina airean, errepidea ukitu gabe, ez han. Balantzaka bezala oinako azkazalen puntetan. Xalaren tolesen artetik, Magdaren aurpegira begiratu zuen: kattagorri bat bere habian, salburik, inork ezingo zuen harrapatu xalaren tolesen etxe ttikiaren barruan. Biribil-biribila aurpegia, sakelako ispiluko aurpegi bat: baina ez zen Rosaren larruazal lakarra, kolera bezain iluna, ez; bestelako aurpegia zen guztiz, begiak airea bezain urdinak, Rosaren berokian jositako izarra bezain horia kasik umetxoaren ile-lumatxa leuna. Pentsa zenezakeen *haien* umeetako bat zela.

Rosak, flotatuz, amets egiten zuen hango herriren batean entrega zezakeela Magda. Minutu batez ilaratik apartatu eta bidea-

ren alboko emakumeren baten eskuetara bultza egin ziezaiokeen Magdari. Baina ilaratik ateratzen bazen tiro egin zezaketen. Eta, hala ere, ilaratik segundo-erdi batez ateratzen bazen eta xal-fardela ezezagun batengana bultzatzen bazuen, hartuko ote zuen hark? Harritu egin zitekeen, edo ikaratu; Rosak xala erortzen utz zezakeen, eta Magda lurrera joango zen eta hantxe hilko zen buruan kolpe bat hartuta. Buru biribil ttikia. Halakoxe ume txintxoa, negarra egiteari utzi zion, eta gustu hutsagatik xurgatzen zuen orain titi erdi lehorra. Oi ttikien heltzeko modu sendoa. Hortz-punta ttiki-ttiki bat goiko oian, bai distiratsua, marmol zurizko hilarri delikatu argitsu bat. Kexatu gabe, Magdak uko egin zien Rosaren titiei, lehendabizi ezkerrekoari, gero eskuinekoari; zartatuak zeuden biak, esne-arrastorik ez. Agortua zen hodi-arrakala, sumendi hila zen, begi itsua, zulo hutsa, eta, hala, Magdak xalaren punta hartu zuen eta, titiari ezik, hari zurrupaka hasi zen. Zurrupatu eta zurrupatu, hariak busti-busti eginez. Xalaren gustu gozoa, lihozko esnea.

Xal magikoa zen, hiru egunez eta hiru gauetz elika zezakeen umetxo bat. Magda ez zen hil, bizirik jarraitu zuen, geldi-geldi hala ere. Usain berezia zerion haren ahoari, kanela- eta almen-dra-usaina. Begiak irekiak edukitzen zituen beti, kliskatzeaz edo lo-kuluxka bat egiteaz ahaztuta, eta Rosak eta batzuetan Stellak begi haien urdintasuna aztertzen zuten. Bidean hanka baten eta bestearen zama jasotzen zuten, Magdaren aurpegia aztertzen zuten. «Ariarra» esan zuen Stellak, haria bezain mehea zen ahots batez; eta Rosak pentsatu zuen kanibal gazte batek bezala erreparatzen ziola Stellak Magdari. Eta Stellak «Ariarra» esan zuen unean, Rosari iruditu zitzaion «Goazen jatera» esan zuela Stellak egiaz.

Baina Magdak bizirik jarraitu zuen eta bere kabuz ibiltzen hasi zen. Bizi izan zen hainbeste, baina ez zen oso ondo ibiltzen, partez hamabost hilabete besterik ez zuelako, eta partez hanketako hezurrek ezin ziotelako haren sabel lodiari eutsi. Airez puztua zeukan sabela, betea eta biribila. Rosak Magdari ematen zion ia bere janari guztia, Stellak ez zuen ezer ere ematen; Stella goseak amorratzen zegoen, hazten ari zen ume bat zen hura ere, baina ez



zen askorik hazten. Stellak ez zeukan hilekorik. Rosak ez zeukan hilekorik. Rosa goseak amorratzen zegoen, baina aldi berean ez zegoen goseak amorratzen; Magdarengandik ikasi zuen behatza ahoan sartu eta haren gustua edaten. Errukirik gabeko tokian zeuden, ezereztua zen erruki oro Rosarengan, errukirik gabe begiratzen zien Stellaren hezurrei. Bazekien Magda noiz hilko zegoela Stella, segituan sartzeko hortzak haren izter ttikietan.

Rosak bazekien Magda laster hilko zela; hila egon behar zuen ordurako, baina xal magikoaren barru-barruan zegoen hobiratua, Rosaren bularren muino dardartiarekin nahastua; Rosa xalari lotzen zitzaion, harekin bere burua besterik estaliko ez balu bezala. Inork ez zion xala kendu. Magda mutua zen. Behin ere ez zuen negarrik egiten. Rosak barraketan ezkututzen zuen, xalaren azpian, baina bazekien egunen batean norbaitek salatuko zuela; edo egunen batean norbaitek jateko lapurtuko zuela, beharbada ezta Stellak berak ere, besteren batek baizik. Magda ibiltzen hasi zenean, Rosa konturatu zen laster hilko zela, zerbait gertatuko zela. Ikaraz egoten zen lo hartuko ote zuen; bere izterraren pisua Magdaren gorputzaren gainean jarrita lo egiten zuen; ikaraz egoten zen ez ote zuen Magda bere pisuaren azpian itoko. Rosaren pisua gero eta urriagoa zen; Rosa eta Stella aire bihurtzen ari ziren pixkana-pixkana.

Magda isilik egoten zen, baina begiak beldurgarriro biziak zeuzkan, tigre urdinak balira bezala. Begira-begira egoten zen. Batzuetan barre egiten zuen... barrea ematen zuen, baina nola izan zitekeen? Magdak ez zuen inoiz inor barre egiten ikusi. Hala ere, Magdak barre egiten zion xalari haizeak haren puntak tolesten zituenean, puskatxo beltzak ekartzen zituen haize gaizto hark, Stellaren eta Rosaren begiak malkoa zeriela jartzen zituen haize berberak. Magdaren begiak argi eta malkorik gabe egoten ziren beti. Begiraka beti, tigre bat bezala. Bere xala zaintzen zuen. Inork ezin zuen ukitu; Rosak bakarrik uki zezakeen. Stellari ez zion uzten. Xala Magdaren umetxoa zen, haren kuttuna, haren ahizpa ttikia. Hartan bil-bil egin eta punta bat zurrupatzen zuen geldi egon nahi zuenean.